

Higienea animaliak elikatzeko lehengaiak zamatzean eta biltegitratzean

Zamaketaria

animaliak elikatzeko langile gisa egon beharko da erregistratuta. Horrez gain, uneoro bermatuko du erabiltzen eta biltegitratzen dituen lehengaien segurtasuna, eta horien trazabilitatea ezagutu beharko du.

Nola bermatzen da higieena?

Zamatzea ...

Ontzi ezberdinak erabiliko dira produktu ezberdinetarako. Ontziak beti garbi egongo dira.

Gainerako tresnak garbi egongo dira: kalapatxa, retroak, garraiatzeko ibilgailuak, zintak, eta abar).

Lehengietara garraiatzea ...

Lehengaiak modu higienikoan garraiatuko dira: kamioia garbi egongo da, lehenago garraiatutako zamarik gabe, eta olanak ere egoera ezin hobean egongo dira (garbi eta lehor).

Langileak ...

Oinarrizko higie arauak ezagutzen dituzte eta prestakuntza ikastaroetara joaten dira.



Biltegitratzea ...

- Produktu ezberdinak oztopo fisikoen bidez bereiziko dira.
- Biltegiak lehor eta eurtik babestuta egongo dira.
- Biltegiak (hormak, sabaiak eta zoruak) garbi eta egoera onean egongo dira horiek erabili baino lehen.
- Animaliak (saguak, hegaztiak, abereak, eta abar.) sartu eta bertan egoteko aukera murriztu egingo da.
- Leihoak, atek eta gainerako irekidurak itxita edo izurriteen kontra babestuta egongo dira.
- Instalazioak konponduko dira: pitzadurak, zuloak edo zoruan, teiltuan edo sabaian egon daitekeen edozein narriadura.
- Olio edo koipe lubrifikatzaile ez toxikoak edo elikagai industrian erabil daitezkeenak erabiliko dira, lehengaiekin kontaktuan egon daitezkeen kasuetarako.

Oro har, beharrezkoa da honako hauek izatea:

1

Trazabilitate sistema datuen erregistroa

Plan honen xedea izan behar da kutsatuta egon daitezkeen eta pertsonen edo animalien osasunean edo ingurumenean arriskua eragin dezaketen lehengaiak baztertzea.

Planak, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: produktuaren trazabilitatea, arriskuaren balorazioa eta neurri zuzentzaileak eta prebentziozkoak ezartzea.

2

APPCC sistema

arriskuen eta kontrol puntu kritikoaren azterketa

Autokontrolerako sistema da, hain zuzen, lehengai eta pentsuen segurtasuna bermatzeko garrantzitsuak diren arrisku mikrobiologikoak, kimikoak eta fisikoak identifikatzea, balioztatzea eta kontrolatzea ahalbidetzen duena.

3

Materialak baztertzeko plana idatzizko plan xehatua

1. **Biltegian sartzea:** ontziratzeari buruzko datuak eta itsasontziko sotoen garbiketari buruzko datuak.
2. Biltegiak eta zama-lanetarako eremuak izen, zenbaki edo hizki bidez identifikatzea.
3. **Biltegitik irtetea:** kamioiari buruzko datuak, alekako landareen norakoa, biltegitiko langileari buruzko datuak, hornitzaileari buruzko datuak, sorta, pisua eta biltegiaren identifikazioa.

lotura interesgarriak

EAEko portuetan animaliak elikatzeko lehengaiak manipulatzeko eta biltegitratzeko higieinari buruzko eskuliburua
Lehengaiak eta pentsuak garraiatzeko higieinari buruzko informazio orria

EAEEn pentsu enpresak baimentzeko eta erregistratzeko prozedurari buruzko eskuliburua
Baimena eskuratzeko edo erregistratzeko eskaera
183/2005 Araudia. pentsuen higieinari buruzkoa